



Barruko hotsak

eta beste soinu txiki batzuk

Leire Bilbao - Maite Mutuberria

Mila gau, 11

978-84-9172-250-2

2021. urtea - 128 or. - 15x24 cm

17,00 €

Liburu honek jarraipena ematen dio *Piztipoemak* eta *Xomorropoemak* (Euskadi Saria 2017) liburuek haur-poesian irekitako bideari. Orduan, piztiak eta zomorroak ziren olerkien protagonistak. Honetan, inguratzen gaituzten eguneroko soinuak dira.

*Esnatzen garenetik lokartzen garen arte,
gure inguruan hamaika eta bat soinu daude.
Esnatzen garenetik lokartzen garen arte,
musika sortzen etengabe.
Esnatzen garenetik lokartzen garen arte,
gurekin batera dantzatzen dute.
Eta lo gaudenean ere...*

*Garbitu ondo,
zorroztu bizkor,
zabaldu guztiz belarriak...
zure egunaren soinu banda
aditu arte!*



Leire Bilbao
(Ondarroa, 1978)

Maite Mutuberria
(Eltzaburu, 1985)

Leire Bilbaok, haur literaturan ibilbidea oparoa izateaz gain, helduentzako bi poema liburu ditu: *Ezkatak* (Susa, 2006) eta *Scanner* (Susa, 2011). Poema horietako batzuk antologia ezberdinetan jaso eta hainbat hizkuntzatarara itzuliak izan dira.

Maite Mutuberriak publizitate, hezkuntza eta literatur lanak ilustratzen ditu.

Hauek argitaratutako liburu batzuk: *Mokotxiki* (Pamiela, 2017), *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (Pamiela, 2016. 2017ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria); *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk* (Pamiela, 2016); *Pikondoaren balada* (Elkar, 2017. Lizardi Saria 2016) eta *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013. Etxepare Saria).

